


www.PREKARIOKA.org

**GAZTERIAREN LAN BALDINTZAK EZ DIRA JOLASA
LA PRECARIEDAD JUVENIL NO ES UN JUEGO**



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua



Consejo de
la Juventud
de Euskadi

www.egk.org

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua




Consejo de
la Juventud
de Euskadi

www.egk.org



LA PRECARIEDAD JUVENIL NO ES UN JUEGO /// GAZTEON LAN BALDINTZAK EZ DIRA JOLASA



Jolastu al duzu PREKARIOKAN jada? Eta zer moduz? Ondo? Ze gorputz utzi dizu? Baliteke gehiegikeria bat iruditu izana, baina hau gure errealitatearen parte bat da. Prekarietate honekin bizi gara eta gure bizitzan ez da joko bat, inondik inora. Prekarietateak oso larriak izatera heldu daitezkeen hamaika ondorio ditu, eta ezin ditugu arinkeriak bailiran ikusi.

Horregatik guztiatik, **Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik (EGK)** gazteok pairatzen dugun prekarietatea ikustarazi nahi izan dugu; batzutan legeek eta besteetan utzikeriak babestuta bizirauten duen prekarietatea; krisiaren ondorio bezala justifikatzen den prekarietatea, askotan ere, gure arazoan kontrako errezeta bezala agintzen dena, prekarietatea bere horretan arazo bat ez balitz bezala.

Horrez gain, **milaka aurpegi dituen prekarietate horren ikuspuntu berriak jaso nahi ditugu eta, horregatik, zure komentarioak eskatzen dizkizugu:** identifikatuta sentitu zaren kutxatiletan, deskribatzen den egoeran kasu berezi, triste ala pozgarriren bat ezagutzen duzun kutxatiletan, zure aburuz garrantzitsua den zerbait esatea ahaztu zaigun kutxatiletan edo, zuzenean, nahi duzun kutxatilan.

Gure helburu nagusia, **gazteriaren errealitate honen irudia administrazioetara helaraztea da, bereziki, gazteria eta enplegu arloetan eskumenak dituzten administrazioetara eta hauen baitan, ardurak dituzten politikari eta teknikariengana.** Horrela, haien lana egiten dutenean, gazteon egoera berezia eta errealitate gordina kontutan izango dute.

Proiektu honekin batera, gazteria, enplegua eta beste beldurrezko istorio batzuen inguruan garatu ditugun hainbat txosten gure webgunean aurkitu ahal izango dituzu, gai zehatz batzuetan begirada sakonago bat emango dizutenak.

www.egk.org
egk@egk.org

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
“Gazteok egina, gazteontzat”

#1

GAZTEA ZARA, ONGI ETORRI: LANGABEZIAN ERORI ZARA



Ongi da, milaka aldiz entzun duzu hau eta dagoeneko ez zaizu ezezagun egiten, baina... **zeinen gaizki dago gazteen langabeziaren auzi hau?**

Berri onak: 35 urtetik beherakoak diren 100 gaztetik 35ek lana dute. Yujjuuujuuju!!! Eta berri txarrak: 100 hauetatik beste 14k ez dute haien lanagatik nork ordainduko dien topatzen. Oooooohhhh!!!

Hau da, soldata eta kontratu batekin lan egin nahi baduzu (ordaindu gabeko lana egiteko aukerak beti daude eta), enplegua topatzeko %33ko langabezia tasa baten kontra egin beharko duzu... eta gutxi gorabehera, **gaztea izanda, orokorrean baino bi aldiz zailagoa izango duzu lana aurkitzea.**

Baina enplegu bat lortuko duzu inoiz... beno, inoiz esaten dugunean, urte bat barru ere esan dezakegu. Izan ere, epe luzeko langabezia Euskadin %49,1ekoa baita. Eta gainera, lan bila denbora luze daramaten 25 urtetik beherakoen artean %31,6ak bi urte bait daramatza lanik gabe.

Guzti honi, azken boladan egoera pixka bat okertu dela gehitu behar zaio. Epe luzeko langabetuen artean gazteak %3,4a soilik baldin bagara ere, orokorrean baino eboluzio txarragoa aurkezten dugu: tasa hau %43,9a igo da. Halaber, 16 eta 24 urte arteko emakume gazteen artean egoera oraindik okerragoa da, %44,3ko igoera duelarik.

Baina, nola izan daiteke hau? Azken aldian gazteen enpleguaz soilik hitz egiten da eta egunero esaten dute gobernuek gazteei zuzenduriko programak garatzen dituztela! Badirudi gazteentzako gauzak soilik egiten direla ta!! Seguru al zaude? **Jarraitu jolasten.**



#2

LAN BILA? CURRIKULUMA TOPATU

Dei bat jaso duzu:

-Aupa, Enplegu Zerbitzutik deitzen dizugu. Zure interesekoa izan daitekeen eskaintza bat daukagu.

Hau poztasuna! Saltoka hasten zara eta pentsatzen duzu: “zer krisi ta zer demontre! Titulua lortu berri eta eskaintza bat jaso dut! Telebistakoak bai ahobero beti langabezia gora eta langabezia behera...!”

-Eta, zertan datza lana?

-Beno ba, begira, eskaintza honetan zure profilak oso ongi ematen duela uste dugu ikastaro hau eta beste hori egin dituzulako. Eta enpresa honek zure ikasketen alorreko praktika batzuk eskaintzen ditu ikastaro horiekin lotuta.

-Oh!- “baina... nik ikasten nuen bitartean egin nituen praktikak” pentsatzen duzu – beno eta, zeintzuk dira baldintzak?

-Baldintzak? Ba arau honek eta beste hark arautzen dituzte baldintzak, eskaintza honetan praktika ez-laboral bat egiteko aukera ematen delako. Zure ikasketekin lotuta dagoenez, curriculuma hobetzeko balioko dizu eta esperientzia pixka bat hartuko duzu eta, beno, zure etorkizunean enplegarritasuna hobetzeko balioko dizu.

-Ongi da, baina, zeintzuk dira baldintzak?

PRAKTIKA EZ-LABORALAK

1/ EZ DA KONTRATURIK SINATZEN, eta praktika hauek egiteak ez du suposatuko, inolaz ere, enpresa eta gaztearen arteko lan harreman bat dagoenik. Hau da, kontratu bat ez den paper hori sinatzekotan ez zara Langileen Estatutaren arautegiaren babesean egongo, ez hitzarmen kolektiboenean, eta besteak beste, ez dituzu atsedanak, jardunaldia, baxak, oporrak edo ordutegiak arautuak izango.

2/ BUKATU ETA HOR KONPON, MARIANTTON: praktiken iraupena hiru eta bederatzi hilabete artekoa izango da. Behin epea bukatuta enpresak ez du zurekiko inolako betebeharririk izango: ez kaleratze kalte-ordainik, ez aintzinakotasunik, ez gairatutako frogak eperik... hor konpon Mariantton! Eta zuk lanean jarraitzea nahi badute, praktika kontratu bat egin ahal izango dizute, edo formazio kontratua... (hau da, gazteei zuzenduriko eta sorpresaz beteriko kontratu bereziak).

3/ GUTXI GORABEHERAKO GIZARTE SEGURANTZA: 2011tik hona dirua trukean duen edozein beka edo praktikak kotizatu beharko du (zein polita litekeen kobratzearen hori, eh?). Pentsioa eskatzen duzunerako kotizatuko du, halabehar arruntetarako, lan istripuetarako... baina langabezia diru-saria eskatzeaz ahaztu zaitez, horretarako ez duzu kotizatuko!

4/ SOLDATA: kobratuko duzu, zaude pozik. Gutxienez, momentuko IPREMaren %80a (Helburu Anitzetarako Errenta Adierazle Publikoa, gazteleraz). Zer? Ez dakizu zer den hori? Ba, hileko 426 bat euro jardunaldi oso bat lan egitearen truke (2014ko IPREMA erabiliz). Bai, badakigu, hilabetero 645,30€ den Gutxieneke Soldataren (SMI) azpitik dagoela, baina kontraturik ez duzula ahaztu al zaizu?

5/ ZERGATIK NI? Ez al dizugu esan jada? ba... gaztea zarelako. Horrelako neurriak soilik 18 eta 25 urte bitartekoentzat dira, ez beste inorentzat.

6/ BAINA GOGORATU, ZURE KURRIKULUMEAN EDERTO GERATUKO DA. Soldata bat eskainiko zizun kontratu baten bila zenbiltzan, baina zer egingo diozu...



#3

LEHEN ENPLEGUAREN BILA ZABILTZA ETA LEHEN LAN ESPERIENTZIA ESKAITZEN DIZUTE

Zure enplegugarritasuna hobetzeko helburuz hamaika hizkuntza ikasten ari zara. Eskola batetik etxera itzultzean irratia piztu eta hurrengoa entzuten duzu:

“... programa honen bitartez, gazteei lehen lan aukera bat eman nahi diegu. Esperientziarik gabeko gaztea – esperientziarik ez duelako lana topatzen ez duen gaztea – esperientziarik gabeko gaztea kate amaigabea apurtzea da gure helburua...”

Eta pentsatzen duzu: “hori ni naiz!! Behingoz heldu da, nire lehen enplegua!!”. Etxetik korrika irteten zara eta Enplegu Zerbitzu Publikora zoaz izena ematera, lekuak bukatuko ez diren esperoan... “niretzat bat egon dadila, bat bakarra nahikoa!! Emantzipatzea lortuko dut oraingoan!! Bai horixe!!”.

Behin han ilara itxoin eta, tokatzen zaizunean... Oh! Hau ezbeharra!! Bi gauza ikasi dituzu gaur:

1)LEHEN ENPLEGUA ETA LEHEN LAN ESPERIENTZIA ez dira sinonimoak, jendeak sinonimo bailiran erabiltzen baditu ere.

2)LEHEN LAN ESPERIENTZIA, gehienetan, gaizki ordaindutako lan bat ez esateko eufemismo bat da.

LEHEN LAN ESPERIENTZIAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

Hau egiteko ez da, legez, programa berezi bat existitzen. Administrazio eta entitate bakoitzak bere modura garatzen du... edo ez du ezer egiten. EAEari dagokionez, mota ezberdinetako programak topatu ditugu:

-Jardunaldi osoan lan egiteagatik hilabeteko 500 euro ordaintzen dituzten **praktika ez-laboralak**.

-Jardunaldi murriztuan lan egiteagatik hilabeteko 500 euro ordaintzen dituzten **praktika ez-laboralak eta bestedirugarriak** debekatzen dutenak.

-Urtebetean zehar hilabetean **600 euroren truke lan egiteko bekak**.

-**Praktika kontratuak** eskaintzen dituzten programak, diruz lagunduak eta gizarte segurantzako bonifikazioetatik etekina ateratzen dutenak.

-Gazteei zuzenduriko beste programa batzuk, haien lehen lan esperientzia izan behar dela ezartzen ez dutenak.



#4

ITXAROPENA GALDU ETA EDOZEIN GAUZA ONARTZEN DUZU

Zure horretan mantentzen saiatu zara... zuk egiten duzun lana besteez egiten duten lanaren balio bera du. Ezin liteke haiek ez baloratzea, ezin liteke zuk kontratu bat merezi ez izatea, ezin liteke soldata minimoaren gainetik edo pobreziaaren neurriaren azpitik ez dagoen soldata bat ez izatea...

Jendeak ea zer egiten duzun galdetu eta eguna sofán etzanda ematen duzula hitz erdika esaten dizu. Eta nekatu zara. Horri, egunero hiru aldiz jateko ohitura txar hori gehitu behar zaio, eta alokairua ordaintzearena, eta fakturak... azkenean zure perspektiba aldatu duzu. Eta ez zara bakarra izan:

“Gazteriaren erdiak edozein enplegu, edozein tokitan eta edozein baldintzatan onartuko luke” Publico.es

“... logikoa dirudienez, exigentzia baxuenak inkesta egiterako momentuan langabezian daudenen artean ematen da; %60a edozein lan, edozein baldintzatan onartuko luke, haien %9ak enplegu ideala bilatzen badabil ere. %12ak soldata egoki bat duen lana bilatzen du eta %9ak bilatzen duen lana bere formazio edo bizitokira egokitzea lehenesten du. Gauza bestelakoa da lan bilaketa ikasketekin bateratzen dutenen artean: solik %29ak edozein lan onartuko luke, %47an bere bizitokitik gertu balitz onartuko luke eta %13ak bere formazioarekin bat datorren lana bilatzen du”. Crisis y contrato social. Los jóvenes en la sociedad del futuro. Nerabezaro eta gazteriaren inguruko Reina Sofía Zentroa.

#5 ZOROEN PARE BILATU ETA GAZTEEI ZUZENDURIKO ESKAINTZAK TOPATU



Nork edo nork nolabaiteko deialdi bat bidali zizun zerbait egiteko ez dakizu zein enpresatan. Gutxi gorabehera zure profilarekin bat zetorrenez, curriculuma bidali zenuen, NANaren fotokopia, notak, tituloa, erkatua noski, eta gogoratu ezin dituzun beste hainbeste gauza. Elkarritzeta egiteko deitu zaituzte. Ez duzu ilusio handiegirik egin nahi, baina itxaropenerako tartetxo bat beti dago...

Telefonoz deitzen dizute. Diotenez, beka eman dizute,

-Beka? Niri bekak ikasteko, bidaiatzeko, jantokirako, eta abar ematen zizkidaten... baina, hau ez al zen lanpostu bat?

-Bai, beno, enpresa batean lanean egon zaitezen beka bat da.

-Aaahh... eta, horrek zer esan nahi du?

ENPRESETAN EGOTEKO BEKAK

Bekak ez dira enpleguak. Bekak ikasketak egiteko laguntzak dira. Azken urteotan helburu hau betetzen duten dirulaguntzak jaitsi egin dira, eta gero eta maizago hurrengo helburua duten bekak topatu ditzakegu: lan arloan konpetentzia profesionalak garatzea.

Dena dela ere, **beka batek heziketa alde bat izan behar du beti:**

-Hitzarmen bat izan beharko duzu, sinatua. Eta egiten duzun lana hitzarmen honetan esaten denarekin bat etorri beharko da.

-Enpresako norbaitek zure tutoretza egin beharko du.

-Zure ordutegia "orokorra" izan behar du, ordu extra, gaueko lanaldi edo jai egunetako lanaldirik bete gabe.

-Ez duzu lanpostu bat bete behar, eta are gutxiago beste langileen kudeaketa egin.

Hala ere, eta ikusi behar izan ditugunak ikusita, hona hemen beken inguruan jakin beharko zenituzkeen beste hainbat gauza:

1// Ez duzu kontraturik izango eta beraz, zure lana ez da hitzarmen kolektiboetan jartzen duenarekin bat etorri beharko, ezta Langileen Estatutuarekin bat, ez dituzu atsedanak hauen arabera arautuak izango, ez baxak edo oporrak...

2// Gizarte Segurantzaren alta eman dizutela egiaztatu ezazu. Badaezpada ere, 30 piko euro dira, baina ordaindu behar dituzte eta asko ez denez...

3// Zuk duzun bekarekin lan postu bat betetzen ari zarela uste baduzu, baduzu zer esan.

Baina... **Zer daukate hauek bekekin? Zergatik ez didate kontratu bat egiten eta kitto?... gaztea zarelako eta horrela egin dezaketelako.** Merkeagoa zara beka batekin eta nahikotxo diru aurrezten dute horrela:

-**Zure kotizazioan** (bekek 35 bat euro kotizatzen dute, baina kontratuek askoz gehiago)

-**Zure soldatan** (beka bat bukatzen zaizunean bukatu eta listo, ez paga extrarik, ez finikitorik, ez plusik...)

-Behin beka bukatuta, Otik has daitezke kontratuekin: praktika kontratua...

-Bekak bat ere egonkorrak ez direnez, **bekarioen artean antolatu eta zuen eskubideak aldarrikatzea zailagoa da.**

#6 ADMINISTRA- ZIOETARA JOTZEN DUZU ETA BEKA GEHIAGO TOPATZEN DITUZU



Beno, bai, jada ez zenuen kontratu bat lortzeko itxaropen handirik, baina ez zenuena

espero zen Administrazioak berak, zure eskubideak defendatzeko ardura duen horrek, kontratua ere ukatzea...

Urtebeteko beka bat eman dizute Administrazioan, bi urtetara luzatu daitekeena. Administrazioan!!!! Eta zuk Administrazioa hurbiltzea enplegu egonkor batera hurbiltzea zela pentsatzen zenuela... funtzionarioen egonkortasunagatik eta hori guztia... baina zuri beka bat eman dizute.

Beka bat. Eta kitto. Zure aurretik beste batek izan zuen beka, eta lehenago beste batek, eta aurretik beste batek... eta lanpostu hau langile batekin betetzeko oposaketarik irtengo den itxurarik ez dago... Eta inoiz irteten bada berdin dio, beka honek ez duelako kontatuko zerbitzu denbora bezala...


* Garapenerako Lankidetzak Euskal Agentzian 6 beka, lankidetzan espezializatzeko

* Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanen sailean edo honen menpeko diren egoitzetan, 8 beka.

*Gobernu irekia, gardentasuna eta gizartearen parte-hartzerako 2 beka: gizartearen iritzi eta parte-hartze arloan ikerketa.

*10 Becas de formación a jóvenes investigadores/as y tecnólogos/as en el entorno científico-tecnológico y empresarial del sector agropesquero y alimentario vasco

***Eta zuk ezagutuko dituzun beste hainbeste...**



#7 AZKENIK, ZURE LEHEN KONTRATUA. BAINA TIRA! LAN BERDINAGATIK GUTXIAGO KOB RATZEN DUZU

Zure praktika laboralak bukatzeaz daude, edo zure beka, edo zure beste beka bat... eta zure nagusiak esan dizunez, oso pozik daude zuk egindako lanarekin eta enpresan mantendu nahi zaituzte. Sei hilabete gehiago oraingo. Zu bertan mantentzea bideragarria den ikusi behar dutelako ezer egonkortu baino lehenago.

Eta zuri burura datorkizun gauza bakarra hau da **“Kontratu bat!!! Kontratu bat!!!! Hitzarmenaren arabera soldata, ordaindutako oporrak, paga extraaaaaaakkkk!!! Eta bukatzen bada, ba kitapena! Eta zorte pixka batekin, langabezia dirusaria!** Listo, emantzipatuko naiz, oraingoan bai, egonkortasun koltxoi bat lortu dut.”

-Ah! Ahaztu baino lehen, paperak egiteko zure langabeziako ziurtagiria behar dugu, eta lan historiala.

-Ongi da, baina... zertarako?

-Praktika kontratua egiteko beharrezko zaigulako.

“Ups! Praktikak? Baina... orain arte egiten ibili naizena zer izan da orduan? Ea ezingo naizen emantzipatu...”

PRAKTIKA KONTRATUA

1// BAI, KONTRATUA DA: praktika ez-laboralekin alderatuta, oraingoan lan kontratu bat lortu duzu eta besteen modura kotizatzen duzu. Bejondeizula.

2// LAN BERDINA EGITEAGATIK GUTXIAGO KOB RATZEN DUZU: praktika kontratuek, legez, gutxieneko soldata bat dute: hitzarmenean diobenaren %60a lehen urtean zehar eta %75a bigarren urtean zehar. Kontratuaren gutxieneko iraupena 6 hilabetekoa da, eta gehienez 2 urte egon zaitezke kontratu honekin. Hala ere, titulazior aldatzen baduzu... berriz egin diezazukete.

Oraingoan langabezia kobratzeko ere kotizatzen duzu, baina gutxiago kobratzen duzunez, zenbatekoa baxuagoa geratuko zaizu.

3// ZERGATIK NI?? Gaztea zarelako, zenbatetan esan behar dizugu ba? Kontratu mota hau 30 urtetik beherakoei soilik egin dakieke (eta nagusiagoei duela 5 urte baino gutxiago ikasketak bukatu badituzte).

4// ZERGATIK EZ DIDATE KONTRATU NORMAL BAT EGITEN? Merkeago zarelako horrela: gizarte segurantzako kostuaren %100era heltzen diren laguntzak dituzte, zure soldata ordaintzeko dirulaguntzak dituzte, eta abar. Horrela bada, nolatan espero duzu garestiago zaien kontratu normal bat eskaintzea?



#8

GAZTEA ZARELAKO GUTXIAGO KOB RATZEN DUZU

Hilabete bukaeran zure kontu korrontea begiratu eta gero inolako zalantzarik geratzen bazaizu, hurrengoia jakin beharko zenuke:

Euskadiko gazteok batz besteko soldata baino 8.000 € gutxiago kobratzen ditugu (zerbait kobratzen dugunok, noski) eta emakume gazteok gure belaunaldiko gizonezkoek baino 3.540 € gutxiago kobratzen ditugu.

Eta hori, zergatik? Ez dizugu berriz errepikatuko hori gazte zarelako gertatzen dela, baina egia esan behar badugu nolabaiteko erlaziorik badu, bai:

-Gazteei bereziki zuzenduriko kontratuak zuri gutxiago ordaindu ahal izatea bermatzen dute (praktikak, formazioa...)

-Horretaz gain, ez dizute beti zertan kontratu bat egin behar beste beka edo praktika ez laboral batzuk egin diezazkizutelako... eta gizarte segurantzari gutxiago ordainduz zer edo zer aurrezten dute.

-Gazteak kopuru handiago batean lanean gabiltzan zenbait sektore daude. Harritzen ez bazaitu ere, sektore hauetan **lan baldintzak txarragoak dira** eta ezegonkorragoak, hala nola, aisialdi begiraleak, kirol begiraleak, eta abar.)

-Bukatzeko, "heltzen azkenak, irteten lehenak" gara, eta horrek esan nahi du enpresetan denbora gutxiago daramagunak garela eta aldaketen aurrean arrisku larrienak pairatzen ditugula: norbait kaleratu behar bada zu izango zara, ez dituzu antzinatasun plusak kobratzen, kategoria profesionala igotzea zaila egiten zaizu, baliteke kontratu mota berri bat asmatu izana...

#9

KONTRATU BATEN TRUKE BIRZIKLATZEA PLANTEATZEN DUZU



Alemanian dena ondo egiten omen dute, edo hori diote, eta norbaiti hango ideia bat hona ekartzea otu zaio. Ez dakizu oso ondo zer den, baina “kotizatzen badu eta soldata baldin badu, aurrera!”.

-Egun on, formazio dualaren inguruko informazioa jaso nahiko nuke. Kontratuak edo horrelako zerbait eskaintzen dela entzun dut.

-Heziketa Profesionalean al zabilta? Programa honetan sartzeko heziketa profesionaleko modulu batean izen emanda egon behar zara, baita Lanbiden ere.

-Beno... nik... esk... nik badaukat titulua... baina profesionalki birziklatu behar banaiz, ba aurrera, arazorik ez. Zer motatako kontratu edo beka da?

-Jakin dezazun guzti honek prozesu berezi bat duela, baina azkenean programaren baitan sartzen bazara, formazio kontratu bat izango zenuke.

-Eta gero? Formazioa eman dizun enpresan geratzen zara?

-Ez, ez, ez dago zertan. Baina batzuetan gertatzen da.

-Ba, beno, eta... formazio kontratua delako hori, zer da?

FORMAZIO KONTRATUA :

1// BAI, KONTRATU BAT DA: yujuujuuujuuu!!! Egia esan, kontratu hau zuri, institututik irten berri den bati edo hiru karrera eta bi master dituen bati egin diezaiokete. Beti ere, 30 urtetik beherakoa bada eta lanbide heziketan matrikulatuta badago edo jada ez duen titulazio batean profesionaltasun agiri bat lortzeko baldin bada (aurreko titulazioa lortzeko beste formazio kontratu bat izan bazuen ere).

Ah! Eta enpresan bertan titulazioa lortzeko beteko duzu lanpostu berberetan 12 hilabete baino gutxiago eman badituzu ere egin diezazukete...

Ah! Aldi Baterako Lanerako Enpresek (ETTak gazteleraz) ere egin ahal izango dizute kontratu hau.

2// PIXKA BAT BEREZIA DEN KONTRATUA: jardunaldi murriztua izango duzu (eta baita soldata murriztua ere) %75 eta %80an urte bakoitzean. Soldata Minimoaren gainean kobratzen baduzu, horrek esan nahi du 480 eta 550euro kobratuko dituzula... langabeziarako kotizatzen duzula kontutuan hartu gabe, praktika ez-laboralekin antza handia dauka honek...

Ah! Eta lanean ez zaudenean, jardunaldi osoa bete arte (eta gehiago) klasera joaten, ikasten, azterketak egiten eta abarretan ibili beharko zara. Horregatik, ezingo dituzu ordu extrarik egin, beno, egoera berezi bat ez baldin bada gertatzen... Berezia? Zer esan nahi du egoera berezi bat? Mmmmm... Eta noski, ezingo zara emantzipatu ere ez...

Horrez gain, orokorrean, baxa hartu behar baldin baduzu eta behin lanera itzulita, baxaren iraupenaren denbora berdina eman beharko duzu lanean kontratuaren epe arrunta bukatu eta gero, lanaren epe osoa betetzeko.

3// ORDUAN, PILA BAT IKASIKO DUT? Bai, zure lanpostuan egiten denaz bi urtetan zehar ikasiko duzu, baina zure ogibideaz... hori ikusi beharko da... badaezpada, zu ziurtatu zaitez zure lanpostua ikasketekin zerikusia daukan.

4// ETA ALEMANIARREK, ZERGATIK ASMATU DUTE HAU? Asmatu ez ezik, Europako gazteria guztiarentzat exportatu nahi izan dute ere. "The job of your life" deitzen zen programa batekin Europa guztiko gazteak erakartzen saiatu ziren, zuk "zure bizitzako lana" imajinatzen duzunean beste zer edo zer imajinatzen baduzu ere...

#10

TIRA, BERAZ, HAU ZEN POBRE IZATEA?



Pobreak? Pobreak gaur egungo gazteak? Zuek bai ahobero!! Gertatzen zaizuen diru guztia mugikorretan, zapatiletan eta alkoholean gastatzen duzuela da... Ez zarete pobreak, xahutzaileak zarete zuek!!!!

Beno, baliteke gutako gehienok amonaren tupperra faltan ez izatea, oinzola zulatuta ez izatea edo asko kexatzen ez bagara egunero ohe batean lo egitea edo guda osteko gosea pasa ez izana... baina euro bat baino gutxiagorekin bizitzea ez da pobrezia, gehiegizko pobrezia baizik.

Baina gure bizi proiektu autonomoa garatzeko nahikoa ez izatea pobrezia da, zure independentzia garatu nahi duzunean beste baten etxean bizi behar izatea pobrezia da, zaugarri izatea pobrezia da, alokairua ezin ordaintzea pobrezia da, hilabete bukaerara heltzeko diru mailegatua eskatu behar izatea pobrezia da, datorren hilabetean diru sarrerarik izango duzun ez jakitea pobrezia da, edozein gauza edozein preziotan onartu behar izatea pobrezia da, hil osoan zehar arroza jatea pobrezia da... **GAZTEOI BEREZIKI JOTZEN GAITUEN ARAZO BAT DA POBREZIA.**

“Pobreziak jota dauden 10 pertsonetatik 6k 35 urte baino gutxiago dute eta, gainera, 2008tik kopurua areagotzen ari da. Eta gainera, askok ez dutenez haien familia propioa garatzeko nahikoa dirurik, gero eta gazte gehiagok gurasoen etxean bizitzen jarraitzen du. Hauek ez dira pobrezia arriskuan bezala kontatzen gurasoen errentaren barruan sartzen direlako eta, beraz, zenbatzen zaila den ezkutuko pobrezia bat suposatzen dute. EPDSaren arabera gure erkidegoan 39.000 gazte izan litezke” Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. Memoria sozioekonomikoa 2013.



#11 ATZERRIRA BEGIRATU ETA EZER EZBERDINIK EZ

Kanadako enbaxadorea etorri da... han etorkizuna omen dagoela eta besozabalik itxaroten gaituela esatera. Erratzen ez bazara, horrelako beste zerbait esan zuen Merkelek bere egunean eta entzun duzunez, Brasil lan egin nahi dutenentzako paradisu moduko bat da. Ez duzu alde egiteko gogo handiegirik (edo bai), eta are gutxiago bidaia ordaintzeko dirurik... baina Administrazioak saltoa emateko hainbat programa dituela ikusi duzu eta Amerikak egingo dituzu!! Edo Asia, edo Europa konkistatu. Berdin zaizu, zure bizitza enplegu baten truke. Ordaindua baldin bada, hobeto. Hori atzerrian soilik existitzen bada, ba zer egingo diozu...

Azken finean, atzerrian dena hobeto dagoela diote, jendea badoala lana dagoelako, asko ikasten dela... **ez dakizu kontu kontari dabilen jendea ala zure familia, koadrila eta kultura atzean utzi beharra paradisura heltzeko ordaindu beharreko prezioa den**, baina dena antolatua ematen badizute, ez duzu ezer galtzen.

Eta bila hasten zara: bekak enpresetan, praktikak atzerrian dauden euskal enpresetan, bekak espezializatzeko gauza batean eta bestean, bekak Nazio Batuetan, Nazio Batuetan? Benetan hauek ez dutela kontratu bat egiteko dirurik? Bekak eta praktikak eta bekak... baina kontraturik ez, ez lan bera egiteagatik soldata eta eskubide berberak dituzten horietakoak behintzat.

Baina zerbaitek zure arreta deitzen du. BEKA ETA PRAKTIKA HAUETAN GEHIAGO ORDAINTZEN DA. Ez denetan, noski, baina gehienetan bai... eta zure buruari galdetzen diozu: **“Zergatik ez didate horrenbeste ordaintzen hemen geratzeko? Alde egiteagatik ordaintzen al didate?”**

Diotenez, kanpora joatean etxebizitza eta janaria ordaindu behar duzu, eta horregatik ematen dizute gehiago. Eta berriro galdetzen diozu zeure buruari “Eta hemen ez, ala? Zergatik uste dute hemen geratzen banaiz betiko gurasoen etxean bizi ahal izango naizela? Ideia zoro bat al da emantzipatzea?”.

ATZERRIRA JOATEKO PROGRAMA PUBLIKOAK:

- Bekak: GlobalTraining
- Praktikak: atzerrian dauden euskal enpresetan
- Praktikak administrazioan: Nazio Batuak...
- Espezializazio eta internazionalizazio bekak...
- Leonardo bekak
- Elkano bekak
- Formazio duala Alemanian: The job of your life: okinak, zerbitzariak...
- Eta askoz gehiago!!**



#12 **ATZERRIA ERRALDOIA DA, ETA BERTAN ERE, DENETARIK DAGO**

Beno, baliteke arazoa hemengo administrazio batek antolatutako zerbaitekin joatea da. Akaso, zure kontu zortea izaten saiatzen bazara atzerrian kontratuak agertuko dira. Baina benetako kontratuak, eh? Baldintza berdintasuna bermatzen duten horietakoak eta EGKko zoroek beti komentatzen dituzten horietakoak.

Bidaia txartela erosi eta izango dituzun lehen gastuak ordaintzeko aurrezten duzu (edo norbaiti dirua eskatzen diozu), eta bazoaz, ea zortea duzun... "Baina, Zer da hau? Zer ari da gertatzen hemen? Langabezia eta prekarietatea atzerrian ere existitzen direla? Ezin liteke!! Ihes egiten duten gazteen istorio hori atzerrian lana topatzen zutelako zela uste nuen nik. Baina, baina... kaka zaharra!!".

Bai, batzuk lan on eta duina topatzen dute, eskubide guztiak bermatzen dizkiena eta bizi kalitate ederra eskaintzen diena. Baina hau ez da beti horrela.

Etxean gaudela prekarietatea gogorra bada, imajinatu kanpoan.
Baliteke ezagun egitea...

...Alemaniako minijob direlako horiek? Agian 450€ ez zaizkizu nahikoak bizirauteko.

...paperak lortzen dituzun bitartean beltzean lan egitea? Bai, herrialde batzuetan Europarrok bisa eta lan baimena behar dugu eta batzuetan enpresak gutaz aprobetxatzen dira lortzen ditugun bitartean.

...lan bera eta soldata ezberdina? Ordaindu gabeko lan ordu extrak? Bai, atzerrian ere, horrelakorik badago... "Alemaniara joandako erizainek haien enpresa salatzen dute esplotazioagatik"

...kaleratze askea? Baldin eta nora zoazen, eta lan baimena eta kontratua lortzen baduzu ere, baliteke inolako segurtasunik ez izatea. Dirudienez, EEUU eta Danimarka honen adibide dira.

...hemengo prekarietatea definitzen duten beste gauza guzti horiek, atzerrian ere gertatzen direnak? Langabezian geratzea, hilabete bukaerara ez heltzea edo behin-behinekotasun kronikoa...

Bestalde, lan munduarekin loturarik ez duten arloetan arazoak ere topa ditzakezu.

Baliteke ezagun egitea...

...heterosexuala ez den maitasuna kalean erakutsi ezin izatea?

...emakume izateagatik hainbat gauza ezin egitea?

...sindikatu eta partidu politikoak debekatuak egon edo ez existitzea?

Hau guztia eta askoz gehiago, atzerriko hainbat tokitan...
eskubideak hemen beti berrmatuta ez baditugu ere, ez dute beti gurekin bidaiatzen!

Beraz, zortea frogatzera inora joan baino lehen **oso ongi informatu zaitez**, zorte handia izan behar delako bizitzan zorte ona gurekin etor dadin...

Ah! Eta hemen hauteskunderik egongo al da zu kanpoan zauden bitartean? Begiratu ea zer nolako aukerak dituzun zure bozka emateko...

<http://mareagranate.org/?p=2088>



#13 ETSIPENAK HARTZEN ZAITU ETA OGIBIDEA ZALETASUN BIHURTZEN DUZU

-Aupa! Begira, lan deialdi bat heldu zaigu, eta zure interesekoa delakoan deitzen zaitugu. "Hori da zortea nirea" pentsatzen duzun bitartean galdetzen duzu: A bai? Eta zer egiteko da?

-Oker ez banago, zure curriculumean fisika kuantikoan doktorea zarela diozu eta fisika teorikoan eta animalien psikopedagogian bi master dituzula, baina muntatze kate batean lan egitea eskaini nahi dizugu

-Ah, beno, ongi da... unibertsoaren handitze abiadura nire etxean tarte libre bat topatzen dudanean kalkulatuko dut.

Ez da erraza erabaki hau hartzea, baina azkenean hartzen duzu. Berdin dio hobby, boluntariotza edo militantzia deitzen duzun, ikasten hasi zinenean zure amets profesionala zen horrekin bat datorren zerbait egitea da gakoa. Eta zure denbora librean egiten duzu, gustuko duzuna egiteak ez dizulako alokairua ordaintzen, janaria prestatzen edo argindarra pizten laguntzen, eta beste lan bat bilatu behar izaten baituzu.

Baina ez zara bakarra, "hamar gaztetik seik gain-kualifikazioa dute haien lanpostuan". Eta horrek zer esan nahi du? Lehen, "lan asko egiten baduzu eta asko ikasten baduzu, urrun helduko zara" esaten zizutenean ez zela guztiz egia... baliteke orain formazio gehien duen belaunaldia izatea, baina zeharo prekarioak izaten jarraitzen dugu.

Beraz, arkitektoa, ingeniaria, literatura afrokolonbiarrean doktorea edo hezitzailea izan nahi baduzu... lanetik irtetea egin dezakezu.

#14

KONTRATU BAT SINATZEN DUZU



Yyyyyuuuuuuuppppppiiiii!!!!

Kontratua, kontratua, kontratua!!! Bila eta bila ibili ostean kontratu bat lortu duzu, nagusitzen zarela izango da? Beno, baliteke ezetz, baliteke gazte izanda ere kontratu bat lortzea. Hala ere, ez gehiegi poztu oraindik...

Zuzenean gazteei zuzenduriko kontratu eta ez kontratu horietaz gain, badaude beste kontratazio batzuk gazteentzat bereziak ez direnak baina hauekin ezberdintasun gehiegirik ez dutenak. Bai, arrazoi duzu, kontratu bat lortzeak ez du prekarietateari ihes egin diozunik esan nahi...

JARDUNALDI MURRIZTUKO KONTRATUA

Egiten dizuten edozein kontratu motak jardunaldi murriztua ezar dezake, hau da, egunean, astean edo hilabetean jardunaldi osoa baino ordu gutxiago ezarri ditzake. Adibidez, astean 30 ordukoa edo hilabetean 2 ordukoa izan daiteke.

Kontratu honekin behin ordutegia bukatuta egiten dituzun ordu gehigarriak ez dira extrak izango, osagarriak izango dira (legeak dioenez, izena aldatu dietelako). Ezberdintasuna hau izango da: jada ez ditzkizutegarestiagoodainduko,orduarruntensoldataberberarekinbaizik. Horretarako, nagusiarekin adostasuna sinatu beharko duzu, beno, adostasuna deituko dugu berak nahi badu...

Baliteke lana izatea, baina horrek ez du esan nahi bizitzeko nahikoa izango duzunik, gazteriaren %22,1ak bizitzeko behar dituen lan orduak baino gutxiago dituelako.

"GUTXIAGO GEHIAGO DA" KONTRATUAK

Bai, baliteke X ordu lan egiteko kontratu bat sinatu izana baina askoz ordu gehiago lan egitea. Baliteke zure enpresak zu altan emanda izateko eta aldi berean zure gizarte segurantzaren parte gehiena aurrezteko egin izana. Baliteke zuri esatea zure soldata igotzeko dela, baina hau horrela egitea irregularra da guztiz eta zure eskubideak urratzen dituela jakin behar duzu

.

"SOSA BATZUK LORTZEKO" KONTRATUAK

Baliteke lan bat topatu izana gazteentzako sektore berezi batean, bueno, gazte asko dagoen sektore batean. Adibidez... Udalekuetara begirale gisa joango zara. Beno, ba jakin dezazun: 8 ordu kotizatuko dituzu baina 24 lan egin, zure kontratua astebetekoa izango da aste hori baino lehenago eta geroago prestaketan eta ebaluaketan lan egingo baduzu ere, segun eta non kontratatzen zaituzten gauza bat edo beste kobratuko duzu, kitapena soldatan urtuko dizutela, eta abar. Beno, diotenez, udan sos batzuk ateratzeko da... eta baldintza hauekin seguru ez duzula betiko honela jarraitu behar...

#15

BAINA KONTRATUAK AMAITU EGITEN DIRA...



Oooops!!! Zer gertatu da? Nik kontratu bat nuen eta... Langabezian nago berriro!!! Eeeeezzzzzz!!!!

Pare bat hilabete, pare bat egun edo pare bat orduko kontratuak, bukatu eta hasi berriz hasieratik. Gazteon enpleguan behin-behinekotasun tasa %50a baino altuagoa da (azken boladan behin-betiko kontratu bat iza-tea gaur egun ziurtasun agiri bat ez bada ere) eta goraka egiten ari da. Gazteoi egiten dizkiguten kontratu berrien %95a behin-behinekoa da.

Kontratuen iraupenagatik gazteriak pairatzen duen ezegonkortasunari (behin-behineko kontratuen %41,6a urte bete baino motzagoak dira) beste arazo bat gehitu behar zaio: askotan ez dakigu gure kontratuak zenbat iraungo duen ere. 2013an, Euskadin aldi baterako kontratua zuten gazteen %40ak, gutxi gora behera, ez zekien zenbat denbora irauten zuten hauek.

Kontutan hartzen badugu lan bila dabilzan gazteen ia-ia erdiak urtebete baino gehiago daramatela bila, lan bat bukatzen zaigun bakoitzean bel-durrez dardarka hasten gara...



#16 ZURE URTEBETEKO LEHEN KONTRATUA, URTEBETEKO FROGA EPEKOA

Txirrin, txirrin, txirrin... “Nor izango da oraingoan... egun beterako edo ordu batzuetarako lana? Akaso inkesta bat...”

-Bai?

-Egun on, honako enpresatik deitzen dizugu, aurreko batean gurekin egin zenuen elkarrikeria eta asko gustatu zaigu zure profila. Gurekin lan egiteko aukera eskaini nahi genizuke, interesa baduzu, noski.

Urduritu egiten zara, “ay, ay, ay, hau zerbait serioa zen. Ez zidaten esan zenbat denborarako, baina azaldu zidatenaren arabera hura ezin zen hilabete bakarrean egin...”

(Ia-ia urtebete geroago)

Email bat jasotzen duzu, “mesedez, zure nagusi zuzenaren bulegotik pasa zaitez bostak baino lehen...” Eta bazoaz bertara:

-Kaixo, zurekin hitz egitera etortzeko esaten zuen email bat jaso dut.

-Bai, zu al zara hau eta beste?

-Bai, bai, ni naiz.

-Ondo da, ba orduan eskatu behar dizugu zure gauzak jasotzeko eta astelehenean berriz lanera ez etortzeko.

-Barkatu, errepikatu dezakezu, mesedez?

-Bai, ez duzula frogatzea epea gainditu.

-Ba, ba, baina... frogatzea epea? Urtebete daramat hemen eta, ez al nuen aspaldi gainditu frogatzea epea?

EKINTZAILEAK LAGUNTZEKO KONTRATU MUGAGABERA.

Kontratu hau ez da gazteei bereziki zuzendurikoa, hala badirudi ere. Hala ere, 30 urtetik beherakoei egiteagatik enpresek 3.000€ ere aurreztu dezakete.

Bestalde, ez da zuk buruan duzun ekintzaile bakarti eta arduratsua laguntzeko kontratu bat ere, haatik, 50 langile baino gutxiago dituen edozein enpresak erabil dezake kontratu hau, hau da, enpresa gehienek.

Mota honetako kontratua baldin baduzu, inolako konpentsaziorik edo azalpenik gabe kaleratu ahal izango zaituzte lehen urtean zehar, beraz, ez zara mugagabe izango 365. eguna gainditu arte. **Zorte on.**



#17

ALOKAIRUA ORDAINDU BEHAR DUZU, ETA BELTZEAN LAN EGITEA ONARTZEN DUZU

-Bai, esan.

-Egun on, hango toki hartatik deitzen zaitugu, beste egunean zure curriculuma ekarri zenigun eta arlo honetan esperientzia duzula ikusi dugu. Gure langile bat oporretan dagoen bitartean hemen lan egitea interesatzen zaizun galdetzeko deitzen dizugu. Hila-bete litzateke, 1.000 euroko soldata eta ordutegia hau eta beste.

-Bai, noski, eta, noizko litzake?

-Astelehenean hasiko zinateke, zuzenean hemen topatzen gara hasi baino ordubete lehenago hemengo gauzak erakusteko.

-Eta, kontratua bertan sinatuko dut? Ikastaro bat egiten ari naiz eta zigorrik ez jartzeko garaiz aurkeztu behar dut kontratua.

-Eeee... beno, kontratua nahi baduzu gutxiago litzateke ordaina, gizartesegurantzakendubeharkogenizukesoldatatiketa. Begiratu beharko litzateke zenbaten geratzen den.

-Ah, mmmm, beno... lana justifikatu behar dut edo bestela ezin naiteke ikastarora falta.

-Ezinbestekoa bada, ba gauzatxo bat egin dezakegu. Ordu batzuetarako emango zaitugu altan eta proportzionala soilik kenduko dizugu.

(Urte batzuk eta ordu pare ilaran igaro ostean)

-Kaixo, langabezia eskatzera nator, lanetik bota naute eta.

-Baaa, ez, kotizatu dituzun egunekin ez duzu eskubiderik ordainsaria eskatzeko.

-Nola ez ba? Denbora pila lanean daramat eta! Nire kalkuluen arabera gutxienez hainbat hilabetetarako dut ordaina...

-Zer esango dizut nik ba? Hemen agertzen denaren arabera oso ordu gutxi lan egiten zenituen hilabeteetan eta ez zara urtebeteko kotizazio minimora heltzen.

Baliteke hau zurekin ez doala pentsatzea, baina dirudienez, Euskadin ekonomia ezkutua BPGaren %20a da, beraz ez da horren arraroa. Gainera, honek beste arazo batzuk sortuko dizkizu bai lan osasuna edo pentsioarekin lotuta...

**KONTRATU BAT IZATEKO ESKUBIDEA DUZU,
EZZAITZATELA ENGAINATU!!**



#18

KOTIZAZIO URTEAK: 37 ETA GORAKA

(Urte asko geroago...)

-Kaixo, pentsioa nola geratzen zaidan ikustera nator.

-Ba... nahikotxo jaitsi behar zaizu, ez duzulako denbora gehiegi kotizatu.


-Baina, nola izan daiteke? Bizitza osoa daramat lanean eta!

-Ba, nik ez dakit, baina sistema honek dioena da ez zarela pentsioaren kopuru altuena jasotzeko izan behar diren kotizatutako urte kopurura heltzen (orain 25 urte badituzu, 37 bat urte kotizatu beharko dituzu pentsio osoarekin jubilatzeke, eta gutxienez 15 urteko kotizazioa jubilatuta ahal izateko...).

Hamaika arrazoi egon daitezke hau gertatzeko: **kotizatzen ez zuten beka asko egin zenituelako, praktika gehiegi egin zenituelako, atzerrira lanera joan zinelako eta han lan egindakoak ez duelako kontatzen, zure arloan asko espezializatu behar zinelako eta horren besteko master eta kontuen artean oso berandu hasi zinelako kotizatzen, langabezia denbora luze pasa zenuelako, edo lanean zeundela zure nagusiek ez zizutelako alta eman gizarte segurantzari.** Nork daki. Ondo dakiguna da prekarietatea ez dela beti adinarekin sendatzen... ez zaitez fio.

#19


ZERGATIK EZ DUZU ZERBAIT ZURE KONTU EGITEN?



Nooooooooooski!! Baina nola ez zait niri lehenago otu? Ez al duzu 13 urterekin bere lehen enpresa sortu zuen neska-mutiko horren berri izan? Eta lehen aldiz bere gurasoen garajea lan egin zuen mutiko hartaz? Eta oso ondo saltzen diren gauza horiek merkaturatzeko enpresa sortu ostean ederto bizi den tipo horren istorioa? Eta 50 euroko kuota orokorrari esker bere negozioa muntatu duen zure bi-zilagun horrena? Ez? Nola? Itxi duela jada? Ah, beno, ba besteen istorioak...

Horrela jarraituz gero, azkenean, krisialdi hau gazteen errua izango da ekintzaile ez izateagatik. Ekintzaile izatea ongi dago, ahal eta nahi

duenarentzat, baina gazte guztiok ez gaude talde horren barruan. Hobeto esanda, **gure prekariedade aurrekarietara so egiten badiegu, gazte gutxi ahal dugu, eta inolako bermerik gabe ekitera behartzen bagaituzte oso egoera larrian utzi gaitzake.** Berez, ekintzailetzaren irudi idilikoa gazteek identifikatzen dituzten oztopo nagusietako bat da, ez digulako uzten non sartzen garen ondo ikusten.



#20 ETSITA ZAUDE ETA AUTONOMO EGITEA ESKAITZEN DIZUTE...

Zure bekaren azken eguna heldu da. Aurreko sei hilabeteetan buru belarri ibili zara lanean oso arduratsua zarelako eta enpresa honetan lana dagoela ikusi duzulako ere. Baliteke, nagusiak esan bezala, zure lana ongi eginez gero kontratu bat lortzeko aukera egotea. Ezin dituzu kontatu orain arte egindako ordu extrak. Nagusiaren bulegotik pasatzen zara.

-Egun on,

-Egun on, eseri mesedez. Begira, asko gustatu zaigu hemen egon zaren bitartean garatu duzun lana eta gurekin geratzeari nahi genuke...

"Yuuuupppppiiiiiii!!! Egia zen!!!" pentsatzen duzu, zure nagusiak jarraitzen duen bitartean:

-Baina gauzak ez doaz ondo. –"oh, oh" – eta ezin dizugu kontraturik egin. Kontuak atera ditugu eta autonomo izan nahi bazenu akordio batera heldu gintezke. Gainera, orain gazteentzat oso merke dago alta ematea eta denok irabaziko genuke. Ez zenuke ezer galduko. Beno, egia esan behar badizugu hainbat eskubide galduko zenituzke. **ONGI ETORRI AUTONOMO FALTSUEN MUNDURA.** Lehenik eta behin jakin behar duzuna hau legala ez dela da. Enpresa batentzako lan egiten baduzu haien ordutegi eta errekurtsioak erabiliz, kontratatua egon beharko zinateke. Menpeko autonomoaren irudia existitzen da, baina ez da hau.


Autonomo faltsua baldin bazara zure gizarte segurantzaz ordaindu beharko duzu eta ez dituzu kontratatutakoen eskubide berberak izango: alde batetik, ez duzu aintzinasotasuna lortuko enpresan, inoiz ez dizkizute plusak eman beharko, nahi dutenean kaleratu ahal izango zaituzte inolako kitapenik gabe, eta ez dizkizute oporrak ordaindu beharko. Horretaz gain, baxak eta langabezia zure kontu!

Eta, **zergatik egiten dute hau?**

*“Profesional liberalak dira iruzur hau gehien pairatzen ari direnak. Abokatuak, arkitektuak eta komunikabideetako profesionalak... geroz eta ezkutuko kontratatu gehiago daude. Enplegu bat lortzea ezinezkoa denez, hortik aurrera denetarik egiten da: **jendea etsita dago eta nagusiek egoera horren abantaila hartzen dute administrazioen onespeneekin, bai euskal administrazioak zein espainola**”* adierazten du ELA-STVko bozeramaileak. Deian argitaratutako artikulua, 2014ko irailaren 8an.

Beno, beno, **ez da horren besterako izango, ez?**

*“Autonomo faltsuaren irudia ez da anekdotikoa. EPArekin azken txostenaren arabera, estatu espainiarrean dauden 250.000 autonomoen artean 160.000k bezero bakarrarentzat lan egiten dutela esan zuten. Hala ere, soilik 13.000k menpeko autonomo gisa eman dute izena, zenbait eskubide gehitzen dituen autonomo mota bat, hala nola, oporrak eta kaleratze orduan kitapen bat. **Azkenean, 90.000 pertsona egon daitezke CNT sindikatuak “modan dagoen iruzurra” jasaten**”.* Diagonal egunkarian argitaratutako artikulua. 2014ko azaroaren 12an.



#21

EKINTZAILE BILAKATZEKO BEKA BAT NAHI AL DUZU?

Nola? Gazteok ekintzaile bilakatzeko bekak ematen dituztela? Beken jaialdia muntatuko dugu!!! Eskatzeko besterik geratzen ez zitzaizula uste zenuenean, hau agertu da zure bildumara gehitzeko!!

Beno, gauzak nola dauden ikusita, aukera bat ematea erabaki duzu. Ahotxikiz esaten duzu, ez baituzu gai hauetan gehiegi sinesten, baina ez dadila ez saiatzeagatik izan. Burua hausten duzu, ikertu, galdetu, begiratu... eta ideia on bat otutzen zaizu, badakizu zer egin... baina ez zara igerilekura botatzen ausartzen. Beka hauek 500 eurotakoak dira, ezer baino gehiago bada... eta horrela dirutxo bat batuko duzu zure ideia bideragarria den hausnartzeko.

Zorte onekoa zu, justu deialdiaren epea irekita harrapatu duzula, bestela beste urtebetez itxaron beharko zenuke. Beka, edo dena delako hori, eskatzen duzu.


Eta... hara! Ez dizute ematen. Galdetzera zoaz eta esaten dizutenez norbaitek zuk baino puntu gehiago lortu ditu. Horrela bada, normala hari ematea, eta... Zertan ditu puntu gehiago?

-Esperientzia atalean.

-Ah, baina hau ez al zen gazte ekintzaileentzat? Nik ez dut nire sektorean esperientziarik, inork ez nauelako kontratatzen eta... beno, beste gauza batera zuzendu beharko ditut nire indarrak...

#22

PREKARIETA- TEAK BESTE MILA AURPEGI DITU



ZERNAHITARAKO KUTXATILA

Zuri, zer gertatu zaizu? Kontaiezaguzu!
egk@egk.org

[illegible]



#23

**BAINA...
LEGEAK
BABESTEN
GAITU,
ALA EZ?**

Beno, beno, beno, ez gara gehiegikeriatan ibiliko. Ea, hemen legeak daude eta gu babesteko daudela suposatzen da. Nola izango da legezkoa gazte izateagatik gutxiago ordaintzea? Nola baimenduko du Administrazioak nire eskubideak murriztea? Nola izan liteke?

Beno... legeak babesten zaitu legeak dionaren arabera. Eta Euskadin ez dago gazteria legerik. Eta gazteoi gutxiago ordaintzea baimentzen duten kontratu bereziak estatuko legeriak arautzen ditu. Eta TTIPa onartzen bada, Europako lege izango da...

#24

HELDU ZARA!! ZORIONAK??



Azken kutxatilara heltzerakoan zure bizitza proiektu autonomoa garatzea bermatzen dizun eta eskubide ezin hobeak eskaintzen dizkizun enplegu eder bat topatzen duzula esatea gustatuko litzaiguke. Baina, **enplegu duina topatzen duen inor badagoela esango dizugu, ez galdu itxaropena.**

Gazte bezala lan bera egiteagatik soldata bera jasotzen duzula lortzeko helburuz Administrazioak buru belarri lanean ari direla esatea gustatuko litzaiguke. Baina administrazioek egiten dutena egiten dutela ere (eta batzuetan haiei esker), lan duina topatzen duen inor badagoela esango dizugu, ez galdu itxaropena.

Gazteriaren kontrako borroka gure gizartearen ardatz bat dela, beste gauza batetaz hitz egiten ez dela eta haren aurka jotzeko errekurtso pila erabiltzen direla esatea gustatuko litzaiguke. Baina **hamaika elkarte, sindikatu, gizarte mugimendu eta entitate horretarako lanean daudela esango dizugu, haiekin bat egin dezakezula.**

Gutxi barru EGK-k gazteriaren langabezia eta prekarietatea murrizteko dituen proposamenak plazaratuko ditu, elkarte, sindikatu eta entitateetan parte hartzen duten hainbat eta hainbat gazteri esker egin ahal izan ditugunak.

Hauek gizarteratzen ditugun bitartean, Administrazioek martxan jarritakoak begiratu ditzakezu.